



E ERANSKINA

Irakasleen ordezko gaien zerrendako kideak

E.1.- Hautagaien lanerako prest egoera aldatzeko epea

Hautagaien lanerako prest egoera aldatzeko epea Hezkuntza Sailaren webgunean dagoen EGUTEGIAREN ARABERA da: <http://www.euskadi.eus/langile-ikasturte-hasiera-esleipena/web01-a3hklair/eu/>

Hautagaiak 3 lurrekoetako plazak eta lanaldi guztietako lanpostuak hautatzeko aukera izango dute, esleipen- zerrendetako lehentasunak alde batera utzita.

Eskaera hezigune ingurunearen bidez egingo da.

E.2.- Prozesuan eskaintako lanpostuen zerrenda

Esleituko diren lanpostuen zerrenda EGUTEGIAREN ARABERA emango da argitara Hezkuntza Sailaren web-orrian <http://www.euskadi.eus/langile-ikasturte-hasiera-esleipena/web01-a3hklair/eu/> eta hezigunean.

Era berean, aditzera emango da zein lanpostuk dituen ezaugarri bereziak.

E.3.- Parte hartzeko eskabidea betetzeko epea

Hezigunean dagoen eskabide elektronikoa betetzeko epea EGUTEGIAREN ARABERA emango da argitara Hezkuntza Sailaren web-orrian: <http://www.euskadi.eus/langile-ikasturte-hasiera-esleipena/web01-a3hklair/eu/>

E.4.- Esleipenaren behin-behineko ebazpena

Esleipenaren behin-behineko ebazpena EGUTEGIAREN ARABERA emango da argitara Hezkuntza Sailaren web-orrian <http://www.euskadi.eus/langile-ikasturte-hasiera-esleipena/web01-a3hklair/eu/> eta hezigunean.

E.5.- Esleipenaren behin-behineko ebazpenaren kontrako erreklamazioak egiteko epea

Esleipenaren behin-behineko ebazpenaren kontrako erreklamazioak egiteko epea EGUTEGIAREN ARABERA emango da argitara Hezkuntza Sailaren web-orrian <http://www.euskadi.eus/langile-ikasturte-hasiera-esleipena/web01-a3hklair/eu/>

Erreklamazioa hezigunean eskuragarri dagoen ikasturte hasierako aplikazio informatikoan agertzen den loturaren bidez aurkeztu beharko da.

E.6.- Esleipenaren behin betiko ebazpena

Esleipenaren behin betiko ebazpena EGUTEGIAREN ARABERA emango da argitara Hezkuntza Sailaren web-orrian <http://www.euskadi.eus/langile-ikasturte->

**HEZKUNTZA SAILA**Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza
*Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza***DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN**Viceconsejería de Administración y Servicios
Dirección de Gestión de Personal

hasiera-esleipena/web01-a3hklair/eu/ eta hezigunean.

E.7.- Aurkezpena esleitutako lanpostuan

Hautatutako pertsonak irailaren 1ean esleitutako lanpostuan aurkeztu beharko dira.